

5. URA, BIZITZAREN ITURRI!

URAK NATURAN IZAN DITZAKEEN EGOERAK

Naturan ur asko dago, eta leku askotan, gainera. Baina ez da beti egoera berean agertzen. Izan ere, 3 egoera ditu:

- Solidoa: izotz eran, glaziarretan edo lurburuetan ...
- *Likidoa*: itsasoetan, ibaietan, ozeanoetan, eurian, etxeko txorrotan, ...
- *Gas egoera*: lurrun eran, hodeietan eta atmosferan.

Uraren egoera aldatu egiten da **temperatura** aldatzean.


JARDUERA 6. Erreparatu arretaz hurrengo argazkiei eta adieraz ezazue zein egoeratan agertzen diren: *solido*, *likido* edo *gas*.



URAREN EGOERA- ALDAKETAK

Aurretik aipatu dugun bezala, uraren egoera aldatzen da **temperatura** aldatzen denean.

- Izotza berotzen denean, ur likido bihurtzen da. Aldaketa- prozesu horri **urtzea** deritzo.
- Ur likidoa hozten denean, aldiz, izotza bihurtzen da. Aldaketa- prozesu horri **solidotzea** deritzo.



- Ura berotzen denean ateratzen den ura, ur- lurruna da. Aldaketa- prozesu horri **lurrunketa** deitzen zaio.
- Ur-lurruna hozten denean, aldiz, kondentsatu egiten da eta likido egoerara bueltatzen da. Prozesu horri **kondentsazioa** deritzo.

FROGATU DEZAGUN AIPATUTAKOA EGIA DELA ...

Ikasle agurgarriok,

Orain arte uraren inguruan irakurritako guztia egia dela ziurtatzeko, zuen txanda heldu da. Tenperaturak uretan eragiten dituen aldaketak aztertuko dituzue. Ziurtaraziz aurretik irakasleak aipatutako datuak egia direla. Ala gezurra ote?

Froga aurrera eramateko, 3 saiakera burutuko dituzue.

Energia hartu eta ekin lanari! Zorte on denoi!

ESPERIMENTUA: URAREN MILA AURPEGIAK

Adi ikasleok! Prozesuaren argazkiak atera beharko dituzue eta email bidez irakasleoi bidali.

MATERIALA

- Plastikozko edo beirazko (kristala) botila.
- Lapikoa eta estalkia.
- Ura



PROZEDURA *(Nola egin?)*

1.- Saiakuntza: Lehenik, ohera joan aurretik jarri ezazue ura plastikozko edota beirazko botila batean. Ez ezazue goraino bete, erdiraino betetzearekin nahikoa izango duzue. Sartu izozkailuan eta utzi ezazue hozten gau osoa.

2.- Saiakuntza: Hurrengo goizean, atera ezazue botila izozkailutik eta utzi kanpoan; behatu ezazue zer gertatzen zaion ordubete pasa ondoren.

3.- Saiakuntza: Aurreko esperientzia bukatzeko, gurasoen laguntzarekin isuri botilan duzun ura lapikora eta jarri berotzen. Aztertu zer gertatzen den.

BEHAKETA *(Prozesua egiterakoan idazten joango gara zer den ikusten duguna)*

1.- Saiakuntza: Izozkailura sartu

Zein egoeratan dago ura izozkailura sartu aurretik?

Zelan dago ura izozkailutik atera duzunean?

Zelan deitzen zaio aldaketa- prozesu horri?

2.- Saiakuntza: Izozkailutik kanpo

Zer gertatzen ari zaio botilako urari izozkailutik atera dugunean?

Zein egoeratan dago ura ordubete eta gero?



3.- Saiakuntza: Ura berotzen

Zerbait ateratzen ari da lapikotik? Zer da?

Naturan agertzen al da urik egoera horretan? Non?

Lapikoaren gainean estalki hotza jartzen baduzu, zer gertatzen da estalkian?

Zergatik agertzen da hori?

JARDUERA 7. Hemen behean duzun baldintzazko esaldi bakoitzarentzat ondorio zuzena aukeratu beharko duzu. Aukeratu bukaerako esaldi zuzena.

Uretara izotza botako bagenu...

izotzak flotatu egingo luke.
izotza hondoratu egingo da.
izotzak arrosa kolorea hartuko luke.

Gure burua uretara botako bagenu...

busti egingo ginateke.
zikindu egingo ginateke.
busti egingo gara.

Ura berotzen jarriko bagenu...

lurrundu egingo litzateke.
erre egingo ginen.
urak su hartuko luke.

JARDUERA 8. Idatzi itzazu esaldi hauen bukaerako aditzak, zakuaren barruan dauden hitzak erabiliz.

■ Ahal izango bagenu, hodeietan ibiliko...

■ Elurrezkoa banintz, eguzkitik ezkutatu egingo...

■ Ur tantak eroriko balira, guk etxera sartu beharko...

■ Egarri izango banintz, ura gustura edango...

■ Gose izango banintz, bi laranja jango...

■ Elurrezko panpina bat egingo banu, sekula ez urtzea gustatuko...

■ Itsasoan haizeak joko balu, olatuak sortuko...

